



Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Migel Arregi Ibarguren Ertxin
Zestoa, Gipuzkoa
(1924-2007)

Aurkibidea



Biografia



Arteagagaraikoa (Ertxiñondo) baserrian jaio zen, herrigunetik hurbil. Nekazaritza-jarduera apaleko baserria zen. Aitonak eta aitak Ertxiñako lignito-meategian egiten zuten lan, biak langileburuak izan ziren gainera. Joxe ere, gaztetan, meatzaria izan zen, eta gerora hainbat lanetan ibili zen, egin zitzaion elkarrizketan ageri den moduan: zurgintzan, ferratzaile, okin... Ertxiñondon ferratokia egon zen, eta inguruko baserrietatik etortzen ziren ganadua ferratzera. Dena dela, urterik gehienak ogia egiten eman zituen; langintza horretan ari zela hartu zuen erretiroa. Pertsona umoretsua, kontalari aparta, eta edozein langintzatan trebea. Ehizarako ere zaletasun handia zuen.

Zintak

ZES-026

- **Proiektua:** Zestoako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arregi Urrutia, Manuel - Artano, Jon
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Arregi Urrutia, Manuel

ZES-027

- **Proiektua:** Zestoako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arregi Urrutia, Manuel - Artano, Jon
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Arregi Urrutia, Manuel

Pasarteak

1. Astoak jo zuenekoa

- **Erref:** ZES-026/002
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:01:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>3 urte zituela, astoak kopetan jo eta Don Benantzio medikuak puntuak eman zizkionekoa; nola gertatu zen azaltzen du.</p>

2. Arteagoikoa baserrian jaioa

- **Erref:** ZES-026/003
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:01:47. **Bukatu:** 00:05:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Arteagoikoa baserrian "Ertxina"n jaio zen. Familia izendatzen du. Aitak eta aitonak meategian lan egiten zuten, eta eguneko zazpi pezeta irabazten zituzten. Baserrietako seme asko joaten zen kanpora ikazkintzara lanera. Euren baserri txikia zen eta lau behi izaten zituzten.</p>

3. "Hiraulika" lantegirako ikatza ateratzen meatzean

- **Erref:** ZES-026/004
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak

Laburpena:

Aitona meategiko enkargatua zen. Minatik "hiraulika" (kare hidraulikoa) lantegirako ikatza ateratzen zen. 14 urte zituela hasi zen Joxe meatzean lanean. Herriko mutil gehienek gerrara joan behar izan zuten eta meatzerako langile faltan egon ziren. Laneguna nola pasatzen zuten azaltzen du.

4. Umetatik aitarekin meategira

- **Erref:** ZES-026/005
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:12:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak

Laburpena:

<p>Meategian lanean hasi zeneko kontuak kontatzen ditu. Joxe aita eta anaiarekin aritu zen lanean meatzean; aitarekin umetatik joaten ziren eta lanean hasterako ondo ezagutzen zuen meategia. Ez zuten ez segurtasun tresnarik ez eta arropa berezirik izaten.</p>

5. Meategiko janzkera eta lan-baldintzak

- **Erref:** ZES-026/007
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:18:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Autoen gurpilekin egindako zapatak edo abarkak erabiltzen zituzten, eta praka "bonbatxoak" zakuz eginak izaten ziren. Meategian tenperatura onean lan egiten zuten beti. Istripuz hildako batzuk aipatzen dituzte. Aizarnako meategiak ezberdinak ziren; ezberdintasunak aipatzen ditu. Lepo otarrei azpian txapa jarrita aritzen ziren ikatza eramaten.</p>

6. Meategiak eta "hirautila" lantegiak

- **Erref:** ZES-026/008
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:18:31. **Bukatu:** 00:22:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak

Laburpena:

<p>Meategiak eta "hirautila" (kare hidraulikoa) lantegiak izendatu eta kokatzen ditu; meategi gehienak Ertxiendian kokatzen ziren. Joxeren aitona galdaragintzan aritu zen lanean. 8 urte egin zituen meatzean lanean.</p>

7. Meategiko enkargatu

- **Erref:** ZES-026/010
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak

Laburpena:

<p>Iraetan meategiko enkargatu jarri zuten. Orduko kontuak eta han egindako lanak aipatzen ditu. Meategiko bulegoak; lana hartzeko nondik-nora jo behar izaten zuen azaltzen du.</p>

8. Militarizazioa

- **Erref:** ZES-026/011
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Militarizatu zen garaiko kontuak kontatzen ditu. 712 pezeta irabazten zituen hilean eta 26 mutilen kargua zuen.</p>

9. Soldadutzara ez joateagatik ordaindu

- **Erref:** ZES-026/013
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Militarizatutako garaian enpresak ordaintzen zien langileei. Jendeak ordaindu egiten zuen soldadutzara ez joateagatik, eta diru hori enpresariari ematen zitzaion estraperloan.</p>

10. Meategiko mantenimenduan eta perratzaile lanetan

- **Erref:** ZES-026/015
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:32:20. **Bukatu:** 00:36:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak

Laburpena:

<p>1946an utzi zuen meategia eta aitak jarraitu zuen. Soldadutzatik libratu zenean errementari lana ikastera bidali zuten Azpeitira eta ondoren etxean perratokia jarri zuen. Gero meategiko mantenimendua eramaten zuen eta arotz lanetan ere aritzen zen meategian bertan. 800 metroan ikatza garraiatzen zuten otarretan, kable bidez.</p>

11. Lanbide ezberdinak probatua

- **Erref:** ZES-026/016
- **Iraupena:** 0:06:50. **Hasi:** 00:36:02. **Bukatu:** 00:42:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Egin izan dituen lan desberdinak: arotz lanetan bere zerra lantegian, autoetako karrozeria konpontzen eta, azkenekoz, okindegia hartu eta bertan hasi zen lanean. Autoen ate korredera berak asmatu omen zuen lehendabizikoz; nola gertatu zen azaltzen du.</p>

12. Gurasoek etxeko lanetarako behar zuten

- **Erref:** ZES-026/018
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Kargu altukoek eurekin lanean hasi eta autoen ate korrederak patentatzeko eskatu arren, aitzak ez zion utzi haiekin lanean hasten, etxean behar zuela eta. Lantegia jarri eta nagusi haiek hasi ziren ate korrederak jartzen.</p>

13. Okin lanetan erabilitako autoa

- **Erref:** ZES-026/019
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Okin lanetan ibili zenean zuen autoa deskribatzen du, motor handikoa eta ate korrederarekin. Toreatzaileek erabiltzen zuten halako kotxea. Material gehiena egurra zuen.</p>

14. Citroen 8205aren karrozeria egin zueneko

- **Erref:** ZES-026/020
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Okindegi zaharreko Citroen 8205ari karrozeria egin zioneko kontatzen du. Manibelarekin arrankatzen zen.</p>

15. Aitonak kontatutako Karlistadetako kontuak

- **Erref:** ZES-026/022
- **Iraupena:** 0:06:19. **Hasi:** 00:49:48. **Bukatu:** 00:56:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aitonak kontatutako Gerra karlistako kontuak aipatzen ditu. Garate gainean frontea izan zenean aitona 14 urterekin bertara.</p>

16. Aizarnako kanoikadak, soldaduen lapurretak...

- **Erref:** ZES-026/023
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:56:07. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Aitonaren gerrako ibilerak kontatzen ditu, kanoikadak... Ertxinako paretak gerra garaian eginak dira. Soldaduek lapurretan egiten zutenekoa eta etxekeo pertza kendu zietenekoa kontatzen ditu.</p>

17. Soldadu frantziarren pasadizoak

- **Erref:** ZES-026/025
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:00:52. **Bukatu:** 01:02:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Aitonak kontatutako soldadu frantziarren pasadizoak.</p>

18. Danbolinzulo bilatu zutenekoa

- **Erref:** ZES-026/028
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:05:54. **Bukatu:** 01:08:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aitonak eta lagun batek Danbolinzulo bilatu zuten. Izenaren jatorria.</p>

19. Aitonak kontatuak

- **Erref:** ZES-026/031
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:11:55. **Bukatu:** 01:14:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Aitona bertsotan aritzen zen. Ipuin ugari kontatzen zizkien eta haietako esamolde eta anekdota bat aipatzen ditu.</p>

20. Aitonak kontatutako Errezilgo pasadizoa

- **Erref:** ZES-026/033
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 01:14:40. **Bukatu:** 01:18:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aitonak kontatutako Errezilen gertatutako pasadizo bat.</p>

21. Aitonarekin goldaketan gertatua

- **Erref:** ZES-026/035
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:19:17. **Bukatu:** 01:22:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aitonarekin goldean ari zela gertatua. Aitonak kontatzen zituen anekdotak.</p>

22. Aitonari isuna jarri zioteneko

- **Erref:** ZES-026/037
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:25:09. **Bukatu:** 01:27:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gaueko 11etan etxeratu behar izaten zen. Anekdotak bat kontatzen du aitona eta haren lagunak pattarra edan eta goizaldera arte egoten zireneko.</p>

23. Aitonak ahuntzari pattarra eman zioneko

- **Erref:** ZES-026/039
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:28:01. **Bukatu:** 01:29:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aitonak ahuntzari pattarra eman zioneko.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com